

# GAUTENA

Gaur

29 Zk.

Martxo 2006

## ELKARRIZKETA CLIMENT GINÉRI

### «ONGIZATE EMOZIONALA ETA HARREMAN SOZIALAK MANTENTZEA DA FAMILIAREN ZEREGIN NAGUSIA»

Urritasuna duten pertsonen bizi-kalitateari buruz ikertzen ari da, eta beren erabakitze gaitasuna handitzearen aldekoa da.

Climent Ginék esperientzia handia du adimen urritasunean espezializatutako psikologo gisa, eta, egun, ardura hartu du gutxitasuna duten pertsonen bizi-kalitateari buruz ikertzeko. Hori dela eta, berak du autismoa duten pertsonen baldintzak hobetzeari buruz jarduteko ahalmen handienetakoa. Ramón Llull Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Dekanoak familiaren inguruko ongizate emozionalaren garrantzia nabarmendu du, eta zailtasun horiek dituztenek erabakitze gaitasun gehiago izatearen alde mintzatu da. Climent Giné Donostian izan zen joan den urriaren 20an, GAUTENAk urtero antolatzen duen zikloan hitzaldi bat emateko, eta gure aldizkarirako zenbait galderei erantzun zien.

#### GAUTENA HOY: Zer alderdik eragiten diete autismoa duten pertsonen bizi-kalitateari?

CLIMENT GINÉ: Neurotipikoen bizi-kalitatearen alderdi berberak dituzte autismoa duten pertsonak: alde batetik, harreman zuzena dute norberak sentitzen duen gogobetetasunarekin; bestetik, zerbitzu edota jarduera jakin baten — edota, oro har, bizitzari buruz — dituzten itxaropenak betetzeko maila jaitsi egiten dute.

Informazio fidagarria lortzea da zailena. Nola jakin zer sentitzen duten eta zer nahi duten? Orain arte, familiak eurak izan dira gutxituen iritzia eman dituztenak, baina hori ez da beti egokiena. Gaur egun, zenbait ikertzailek lanean dihardute metodo batzuk ezartzeko, benetan behar dutena ongi ulertzen dugula ziurta dezagun. Adibidez, era espontaneoan jarduera jakin bat egiten badute denbora luzez, jarduera hori zein den identifikatuko dute sistema horiek; horretarako, kontuan izango dute gutxituek aukeratzeko zenbateko gaitasuna duten, eta zeregina eurentzat onuragarria dela ziurtatuko dute.

#### G.H.: Zein da eragilerik erabakigarriena?

C.G.: Autismoaren kasuan, segurtasun emozionala nabarmenduko nuke; ingurukoek maitatzen eta baloratzen dutela sentitzea, alegia. Autoerregulazioa ere garrantzitsua da: erabakitze gaitasuna handitu egin behar da, ahal den neurrian.

#### G.H.: Zer egin dezakegu familiok, pertsona horien bizitza hobetzeko?

C.G.: Autismoa duen haurra familia batera iristen denean, oro har, autoestimua galtzen da. Seme-alaben hezkuntzari buruz aurrez ikasitakoak ez du ezertarako balio haur autistarekin, eta, ondorioz, gurasoek konfiantza galtzen dute beren buruekin. Lehenengo eta behin, segurtasun-sentipena indartu behar dute; hau da, ongizate emozionala irmotu. Gurasoak pozik badaude, seme-alabak ere hala egongo dira.

Bigarrenik, harreman sozialak izan behar ditu familiak, eta seme-alaba autistei harreman horiek erraztu behar dizkiete. Askotan, isolatu egiten dira bai gutxituak, bai haren hurbilenekoak. Horren

aurka borrokatu behar da, eta haurra etorri aurretik egiten zena egin, lehen joaten ziren leku berberetara joaten jarraitu. Hitz batean esanda, psikologikoki ondo mantentzea eta lagunak egitea dira familiaren zeregina garrantzitsuenak.

#### G.H.: Zertan lagun diezaiekete eurekin lanean diharduten profesionalak (hezitzaileak, psikologoak, medikuek, osasun-langileak, laguntzaileak, eta abarrek)?

C.G.: Pertsona autistekin zerikusia duten guztiak hausnarketa eta berrazterketa egin behar dute, gutxituekin duten jarrera nolakoa izan den aztertze; hots, etengabeko autoebaluazioa egin behar dute. Halaber, gurasoek erabateko parte-hartzea dutela bermatu behar dute, seme-alaben programak ezartzean. Horri dagokionez, familiaren laguntza sustatu behar dute profesionalak; gaitasuna eman behar diote, eta ez jo soilik hartzailezat. Eta, nola ez, beren bizi-kalitateaz arduratu behar dute.

#### G.H.: Zertan lagundu behar du gizarteak?

C.G.: Autisten hurbileneko eremuetan hartzen diren neurri guztiak alferrikakoak dira, gizarte osoa talde horrekin konprometitzen ez bada, gizarte-politiken eta aldaketa kulturalen bidez. Konpromiso horri eusteko, bazterketa positiboa egiteko neurriak hartu behar dira lanean, hezkuntzan, osasunean, eta abarretan. Pentsatzeko erari dagokionez, adimen urritasuna duten pertsonak bizitza sozialean erabateko parte-hartzea izateko eskubidea dutela hedatu behar da.


#### G.H.: Une honetan, urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatearako eredu berritzaileen diseinuan ari zara lanean, FEAPS Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Espainiako Konfederazioak hala eskatuta. Esango al zeniguke zertan datzan zure lana eta zeintzuk diren ondorio aipagarrienak?

C.G.: Bizi-kalitatearen ikerketa-eremuan, egoera hauxe dugu: bizi-kalitatea neurtzeko eta aplikatzeko irizpideei buruzko adostasuna lortu dugu nazioartean. Esaterako, kontzeptu horrek barne hartzen dituen dimentsioei buruzko erabaki orokorra hartu dugu. Hauek dira dimentsioak: ongizate emozionala, garapen pertsonala, ongizate fisikoa, autodeterminazioa, gizartearen barnean egoteko sentipena eta

eskubideak. Dimentsio horien neurria eta, beraz, bizi-kalitatearena, alderdi jakin batzuetan oinarritzen da; adibidez, gutxituen oinarritzko beharrak —bai eta ongizate emozionala eta materiala ere— zein proportziotan asebetetzen diren; hautatzeko zenbateko aukera duten; testuinguruei esker zenbateko garapena lortzen duten, etab.

Gutxitasuna duten pertsonak jasotzen dituzten zerbitzuak ebaluatzeko eredu diseinatzea da nire ekarpen nagusia. Zerbitzu horiek hobetzea da helburua; horretarako, profesionalak autokritika egiteko konpromisoa hartu behar dute. Labor-labor esanda, zerbitzua eskaintzen duen zentroaren balorazioa egin nahi da ereduarekin, eta, horretarako, profesionalen zuzeneko parte-hartzea du, bai eta familiarena, zuzendaritzarena eta kanpoko adituena ere. Hausnarketa horren ondorioz, hobetzeko egitasmoa azalduko lukete erakunde horretako profesionalak eta zuzendaritzak, erabiltzaileen familien lankidetzarekin.

Mirenko Careche



CLIMENT GINÉ

Ramón Llull Unibertsitateko Dekanoa

# ZERBITZUEN KARTERA ETA BERRIKUNTZAK ARAUDIAREN IKUSMUGAN

Ezintasunen alorrean jarduten dugun Elkarteon funtzioetako bat da egoeran eragitea, gure arreta jasotzen duten pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko. Aldi berean, guztiontzako leku gehiago izango duen gizartea lortzen laguntzen dugu. Gaur egun, eta etorkizunari begira, hainbat esku-hartze ildo garrantzitsu ditugu, eta gaur hemen azaldu nahi ditugu.

Alde batetik, adierazi beharra dago mugimendu asoziatiboak aurrerapena izan duela, duela gutxi Zerbitzu Kartera sortu baitu FEAPSek ([www.feaps.org](http://www.feaps.org)). Agiri horrek azaldu ditu gizarte alorrean adimen minusbalioetasuna edota autismoa duten pertsonen jasotzeko eskubidea duten laguntza zerbitzuen ezaugarriak. Zerbitzu horiek zeintzuk eta nolakoak izan behar duten azaltzen du, baita xehetasunak zehaztu ere – Laguntza Goiztiarra, Eguneko Arreta, Etxebizitza, Arreta Okupazionala, Familiei Laguntza, Aisialdia...-. Lehen aldia da Espainian gisa horretako agiria sortu dutena, sektoreko adituek eta familien ordezkari izan diren elkarteek adostutako agiria baita. Orain Euskal Autonomia Erkidegoan Kartarako proposamena gure inguruko egoerari moldatzen ari dira. Gisa horretako tresnen garrantzia nabarmendu nahi dugu, etorkizunean Herri Administrazioarekin gure Zerbitzuak diseinatzeko eta sostengatzeko negoziatioetan funtsezko elementuak izango baitira.

Bestalde, gogora ekarri nahi dut laster sartuko dela indarrean Autonomia Pertsonalaren eta Mendekotasunaren legea. Gobernu Zentral berriak hartutako konpromisoa dugu hori, eta datozen hiletan sartu beharko luke indarrean. Lege

berria sortzeko abiapuntua pertsona adindunen mendekotasun egoerak sortutako kezka izan da; ez dago hori esan gabe uzteko arrazoirik. Hala ere, Mendekotasunaren Liburu Zuria idatzi zutenetik, ezintasunaren alorrak ekarpenak egin ditu, haren egoera ere aintzat har dezaten. Azkenean gai hori nola zehazten duten jakiteko adi egongo gara, ondoren nola garatzen den ikusteko, eta bereziki, ezintasunean eta Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatzen den ikusteko.

Azkenik, ezintasunaren mugimendu asoziatiboaren jarrera nabarmendu nahiko genuke, aurrera egiteko nahia agertu baitu, eta Legebiltzar eta Administrazio autonomoari eskatu baitie Zerbitzu Sozialetarako arautegi berria sortzeko, herritarren eskubide sozialak berma ditzaten. Eusko Jaurlaritza horrelako egoera batera hurbiltzeko aurrera egitearen alde dago, legegintzaldi honen amaiera alderako. Hala ere, bidea gelditzen zaigu oraindik, gizarteko eredia hobetzeko eta sakontzeko eskaeraren erantzuna lortu arte.

Laburpena: agirien, adibidez, Zerbitzuen Kartararen garrantzia nabarmentzea, eskubideak inplementatzeko bidean aurrerapausoak direlako; Autonomia Pertsonaleko Legeak ezintasuna duten pertsonen ekar liezaiekeena aztertzea; eta beste guztien gainetik, aurrera egin behar dugula gogoraraztea, hezkuntza, osasuna eta pentsioak bezalaxe, zerbitzu sozialak ere exijitu daitezkeen herritarren eskubideen mailara iritsi arte.

**Ramón Barinaga**  
*Zuzendaria*

## ANTOLAKUNTZA GARAPENA: PAUSO BERRIAK ETA EZ HORREN BERRIAK

GAUTENAKo kideok uste dugu garrantzitsua dela hobetzeko tentsioari eustea. Hori errazago lortzeko, eraginkorrak direla frogatu duten ereduak jarraitzen ditugu. Horiek hala, 1997ko urtarriletik aurrera, ISO sistema erabiltzen dugu, kalitate eskakizunekin bat datorren funtzionamendu maila bermatu ahal izateko. Bikaintasun eredu (EFQM) hainbat hurbilketa egin ondoren, 2005eko bigarren seihilekoan gure urratsak eredu horren azpian orientatzea adostu genuen, eta EUSKALIT Kalitaterako Euskal Erakundeak finkatutako Konpromiso Diploma eskatu genuen. Neroni eman zitzaidan Kalitate Sailaren ardura, gai horietako dedikazioa handitu ahal izateko.

2004-07 urteetarako Plan Estrategikoarekin bat datozen Gestio Planak betetzea, Kalitate Sailerako Urteko Hobekuntza Plana egitea eta betetzea, Eskubideen kultura bultzatzea, Bizi-kalitatearen kultura, eta bere neurrian, baita Etikarena ere, Gestioa hobetzea, proiektu partekatu honetan langileen eta familien inplikazioa eta parte-hartzea lortzea, horiek guztiek mugarri izan behar dute hobekuntzara bidean, beti izango baitira erreferentzia nagusiak autismo espektoaren gaixotasuna duen pertsonak eta haren familia.

**Agustín Illera**  
*Kalitate arduraduna*

## BAZKIDEAK LORTZEA

Azken hiruhilekoan lehen bazkide kolaboratzaileen bilketa egin dugu. Hainbat pertsonen ahalegin handia egin dute kanpaina horretan, eta horren fruitua da lortutako emaitza. Hala ere, gurea bezalako elkarte batek babes sozial zabalagoa lor dezakeela uste dugu, eta horregatik,

aldizkariaren zenbaki guztietan izen-emate buletina aurkituko duzue, zuen inguruko pertsonen emateko.

Aurten egingo dugun sentsibilizazio kanpaina berriz ere beste bultzada bat emango diogu kanpaina horri.

## NORBERAREN BAITAN BIZITzea (KUTXAREN KIDE DIGITALEAN KALERATUTAKO ESKUTITZA)

Kasualtaterik ez omen dago, baina nik, egun batez, bi ezustekorekin egin nuen topo: batetik, GAUTENaren eskutitz bat jaso nuen, eta gure inguruan elkarteko kide-laguntzaile gisa izena eman nahiko luketenen berri emateko eskatzen zigun; bestetik, Monty-ko artikulu bat irakurri nuen: gorreria duten pertsonen eguneroko bizitza nolako den erakusten zuen. Beraz, biak elkartzea erabaki nuen, lagunei autismoaren mundua nolako den azaltzen saiatzea, eta elkarteari laguntza ematea zein ondo etorriko litzaiokeen adieraztea. Baina, noski, autismoaren mundua zaila da; nola azalduko dizuet ba neuk ere imajina ezin dezakedana?

Austiek ikusi, entzun, hitz egin (ez denek) dezakete, eta gehienek atzerapen handia izan arren, badira ohiko adimena eta hori baino altuagoa dutenak ere. Beraz, zein da arazoa? Bada, hauxe: jasotzen duten informazioa ezin dutela prozesatu zentzumenen bidez. Ez dut ulertzen zer hautematen duten, zeren, ez baitute erantzuteko gaitasunik, ez eta pentsamenduko eta besteen asmoak igartzeko ere. Ulertzen ez duten eta munduan isolatzen dira batzuk, munduak berak ulertzen ez dituen lekuan, hain zuzen; eta beldurra ematen die horrek. Izan ere, askotan, ohikoa ez den sentikortasuna diote argiari, soinuari eta ukimenari. Beste batzuek parte hartu eta komunikatu egin nahi dute, baina ez dute behar adina gaitasun. Hitz egiten jakin arren, ez dakite elkarrizketan aritzen.

Imajina al dezakezue beren bakardadea?

Umeek inguruan dutena ikuste hutsarekin ikasten dute, belakien modukoak baitira; hori galarazi egiten zaie autistei. Errutinaren eta errepikapenaren zale amorratuak dira, segurtasuna ematen baitiote. Inguruko edozein aldaketek antsietatea eragin diezaiakete; espero ez duten zaratek aztoratu egiten dituzte: zakur-zaunkak, kanpaien hotsak; edota leku jakin batekin lotzen ez duten norbait leku horretan topatze hutsak; adibidez, ama eskolan edota irakasle bat

supermerkatuan topatzeak. Gaixo daudenean, ez dakite esaten non duten min, ez eta zenbateko mina duten ere; eskolan zauriren bat egiten badute, ez dakite nola egin duten. Beren aurrean norbaitek esaten badu «jateko modukoa da umea», hitzez hitz hartuko dute. Ez dute ulertzen esaldien bigarren zentzua.

Oso gutxitan ikasten dituzte gauzak berez, dena erakutsi egin behar zaie nola egin. Ezin dute ulertu «ni» ni naizela eta «zu» beste pertsona bat dela, ez eta ipilua beste aldetik begira duen haurra bere isla dela ere.

Zer gehiago kontatu? Milaka gauza, denak elkarrengandik desberdinak baitira. Autismorik ez da; autistak daude eta guztiek ezaugarri komun bat dute: komunikatzeko eta sozializatzeko arazo handiak dituzte.

Bestalde, lehen aldiz begiratuta ez zaie antzematen ezaugarri oso bereziak dituzten pertsonak direla, ez baitute bereizgarri fisiko nabarmenik. Horregatik, jendeari enbarazu egin diezaiakete eta horiek gaizki hezitakotzat jo, eta gurasoek haurrari hezibide ona emateko gaitasunik ez dutela pentsa dezakete.

Azaltzen ari naizena azalduta, imajinatuko duzue zer garrantzitsua den autismoa duten haurrentzat gaixotasuna ahal bezain pronto diagnostikatzea eta laguntzen hastea, eta era pertsonalizatuan egitea; norberaren kasua bakarra baita. Zenbat autista hainbat kasu daude, eta gehienek bizitza guztian babesa izan beharko dute, oso gutxi lortzen baitute bizitza autonomoa izatea; horrek ikaragarriko kostua suposatzen du. Eta hemen sartzen da hasieran aipatu dudana GAUTENaren eskutitza, laguntza-eskakizuna baino ez zena. Lagundu nahi baduzu, ez egin zalantzarik: GAUTENAn zure zain gaude. Eskerrik asko.

Mariasun Argomaniz

## ZAILTASUNAK OPORRETAN

Ez dago zalantzarik. Egund GAUTENaren parte garen familiontzat askoz errazagoa da, elkarrekin urte askotan egiten duen lanari esker. Hala ere, ezin dugu lasaikerian erori eta dena egina dagoela sinetsi. Gure seme-alabekin aurrera egitea oso zaila da, eta borrokatu egin behar dugu, alderdi guztietan bizikaltate onena izan dezaten.

Orain dela gutxi, esperientzia oso mingarria izan dut. Gabonetako oporretan, 9 urteko gure semea krisi oso larrian sartu zen. Horregatik, pediatriako larrialdietako zerbitzuetara jo genuen, gaixotasun fisikoaren edozein alderdi baztertzeko. Medikuek egindako azterketa oso azalekoa eta eskasa izan zen. Guardia psikiatrari eman zituen abisua; hark aholku txiki bat eman eta goizean GAUTENAKo bere psikiatra ikustera joateko esan zigun. Gauean, egoera asko okertu zen, eta, beraz, goizean semea hartu eta berriro larrialdietara joatea erabaki genuen. Lehenengo GAUTENAtik pasatu nahi izan genuen, babesa, orientazioa eta aholkularitza izateko. Ezusteko galanta izan genuen: itxita zegoen, oporrak zirela-eta; guk ez genekien halakorik. Inolako babesik gabe sentitu ginen. Azkenean, Familiari Babesa emateko Arduradunarekin hitz egin ahal izan genuen, eta alboan izan genuen uneoro. Berriro larrialdietara iritsi ginenean, medikuek hartu arteko itxaronaldia luzea eta gogorra izan zen, semea egoera oso txarrean baitzegoen. Azkenean, sarrarazi gintuztenean, haurrari ez zituen egin ez azterketarik ez antzekorik; guardiako psikiatrarengana pasatu gintuzten zuzenean, eta ez zen lehenagoko bera, beste bat baizik.

Ondoren, arreta medikoan egin daitekeen zentzugabekeria handienetakoa egin zuen. Gure semearekiko interes zipitzik ez zuen agertu medikuek, eta ez zuen esan nola lagundu; ez zion gure kasuari jaramonik egin nahi izan. Ez zigun eman jarraitu beharreko agindurik, eta ez zuen idatzi zigan pasatu ginela adierazten zuen txostenik.

Hemen azaldu dudana historiako esperientzia gogorra — zehetasun latzik eman gabe kontatu dudana— ez da izango lehena, behar bada, baina ziur nago azkena izatea nahiko nukeela.

Zenbait gairi buruzko hausnarketa egin nahi nuke. Lehenik eta behin, gure seme-alabek opor oso luzeak dituzte, eta askotan ondoeza eragiten diete, hain beharrezkoa duten errutina hausten baitie. Gure seme-alabek —horietako askok mendekotasun handia dute— ezarritako eskolako egutegia jarraitu behar ote duten mahaigaineratu nahi nuke, edota beste egutegi zehatz bat sortu beharko ote litzatekeen, nolabait arazoak konpontzeko: batetik, errutinaren aldaketak eragiten dieten asaldura arintzeko; bestetik, familiok seme-alaba gutxituei arreta ematean ditugun zailtasunak murrizteko; izan ere, lanbideaz arduratu behar dugu, gainerako seme-alabek, gure bikotekideaz... eta, are gehiago esango dut, geure buruez arduratu behar dugu, ama garenok, emakume garenok. Uste dut ez nabilela oso oker, gure seme-alaben pisu handiena eta zailena emakumeok jasaten dugula diodanean.

Bestalde, GAUTENAKo profesionalen eta elkarrekin osatzen ditugun familion arteko komunikazioak erraza eta dinamikoa izan behar luke, beharrezko informazioa eskura izan dezagun; batez ere, informazioa lagungarri izan dakigun.

Azkenik, eta garrantzitsuen dena, gure seme-alabek bizikaltate integrala izateko borrokatu behar dugu; hots, bizitzako alderdi guztiek ongizatea bermatuko duten bizikaltatea izateko. Batez ere, saneamenduari dagokiona.

GAUTENAK antolatutako zituen azken hitzaldietan, diagnostikoaren protokolo bat sortzea izan zen aurkeztu ziren gaien artean garrantzitsuenetakoa. Batez ere, medikuntzako profesionalentzat izango da, eta diagnostiko medikoei goiz ezartzeko tresna fidagarria eta eraginkorra izango zela adierazi zuten. Bada, agian, beste protokolo bat sortu beharko litzateke, hau ziurtatzeko: gure seme-alabek, beren zailtasunak kontuan izanda, bizitza guztirako arreta mediko onena izango dutela, arreta bikaina... merezi duten arreta.

Lourdes Fernández



## AGUR ALVARO (IKASLE BATI AGURRA)

Beti egin dugun bezalaxe, ALVARO, euskaraz egingo dizugu agur, triste, oso zaila egiten baitzaigu gelan zure falta onartzea. Izan ere, horrenbeste eman diguzu!

Triste gaude, baina lasai ere bai, Txikia, seguru baikaude inguruan izan zenituenen maitasuna eta beroa utzi duzula ikastolan, gu guztiontzako laztan modura.

Agur ALVARO, beti arte.

**Langaitzeko Irakasleak**



Laburrak

### LANAK ABIAN

Martxa onean doaz aurrera Miramon IIko etxebizitza berriaren eta Berioko Eguneko Arreta Zerbitzuko lanak.

Uda ondoren etxebizitza baliabide berriak erabiltzeko moduan egotea, eta urte amaierarako, aldiz, Eguneko Zentro berria abian izatea espero dugu.

Hala, GAUTENaren azpiegitura fisikoek hobekuntza nabaria izango dute, kalitatearen aldetik, baita hedatzearen aldetik ere, eta Etxebizitza Zerbitzuaren kasuan, plaza kopurua gehituko da, lehengo 7ei beste 7 gehituta.

### FAMILIENTZAKO HITZALDIA

Datorren martxoaren 30ean, osteguna, informazio hitzaldia egingo dugu Atano III gelan, (Kiroletxean – Anoetako Estadioan). Hitzaldiaren gaia Ahoko eta Hortzetako Higienea izango da, eta hainbat alor landuko dute; esate baterako, ahoko eta hortzetako arazoan gainerako oinarritzko jakintza, gaixo berezientzako dauden tratamenduak, baita higiene ona izateko orientazio praktikoak ere. Hitzaldiko zuzendari izango da Juan Cruz Ruiz Villandiego doktorea, Quirón klinikako espezialista, GAUTENAKo hainbat eta hainbat kideren tratamenduan eskarmentu handia duena. Hitzaldia familiei zuzendua egongo da, nahiz eta guztiontzako interesgarri izan daitekeela uste dugun. GAUTENAKo langileentzat ere izango da bereziki.

### LANGILEEN BAJAK

- **Irma Isasa** doktoreak lan-utzialdia eskatu du, bere bizitza profesionalari beste norabide bat jarri nahi diolako, eta familiaren egoeragatik ere bai.

- Gure elkartean 20 urte baino gehiagoan zintzo lanean jardun eta gero, **Iñaki Barea** Eguneko Zerbitzuko langileak utzi egingo gaitu osasun arazoengatik. Eztarrian arazoak ditu eta horrek ez dio uzten gure artean egin beharreko lana betetzen. Horregatik, lanerako gaitasun eza lortzeko prozesua jarri du abian.

- **Mariví López** Urrietako etxebizitza langileak ere utzi egin gaitu, 10 urte baino gehiagoan lan gogorra eta ahalegin guztiak egin ondoren, ezin dituelako bateratu laneko ordutegiak eta familiakoak.

Horiei guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, urte horietan guztietan izandako dedikazioagatik.

## AIA Año Internacional Asperger 1906-2006 Centenario de Hans Asperger

Aurten, 2006. urtean, Asperger-en nazioarteko eguna dugu. GAUTENAn gero eta pertsona gehiago ditugu sindrome hori dutenak. Gaur egun Asperger sindromea duten 30 pertsonatik gora ditugu gure artean, hau da, GAUTENAK hartzen dituen pertsona guztien % 10. Urteurrena modu berezian ospatzeko, hainbat ekintza antolatuko ditugu:

- Hainbat gestio egiten ari dira, Asperger Sindromeari buruzko libururen bat argitaratzea lortzeko.
- Urtero urrian GAUTENAK egiten duen Konferentzia Zikloan ASPERGER sindromearen gaia aztertuko dute nagusiki. Han, gainera, familiek modu aktiboan parte hartzea nahi dugu.
- Otsailaren 23tik 26ra Asperger Foroa egingo dugu, gure web orriaren bitartez: [www.Gautena.org](http://www.Gautena.org)
- Gautena Hoy aldizkariaren hurrengo alea Asperger Sindromeari buruzko monografikoa izango da.

**Ignacio Gallano**  
*Mediku Zuzendaria*

## ELGOIBARKO IKASTOLAN GELA BERRIA ZABALIK

Gelak harrera ona izan duela nabarmendu nahi dugu, bai irakasleen aldetik, bai gurasoen eta ikastolako ikasleen aldetik. Egiten dituzten ekintzetan guk ere parte hartzea nahi izan dute (irteerak, eskolako ikuskizunak, inauteriak, integrazioak eta abar).

Gela toki onean dago eta leku ugari du. Hiru ikasle joaten dira egun osoz, zazpi urtetik hamar urte artekoak.

Gela berri hori irekita, GAUTENAK 15 gela ditu eskoletan eta ikastoletan, probintzia guztian sakabanatuta.

Honako hauexek dira gelako langileak: Cristina Aguirrebeña, Itsasne Apezteguia, Mónica Domínguez eta Ane Carmona.

**Marijo González**  
*Hezkuntza Zerbitzuko Arduraduna*

## JOSE ANTONIO ZUBIAREN FAMILIARI ESKER ONA

Aldizkarian artikuluak idatziz lagundu duzuen guztioi nire eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet, Joseanen izaera estimatzen duzuela eta maite duzuela erakutsi baitidazue.

Ohartu naiz guztiok jakin duzuela ikusten GAUTENAn gorputz eta arima aritu dela.

Telefono deien bitartez niguatik eta nire semeengatik erakutsi duzuen interesa ere eskertu nahi dizuet, ezin izan baitut beti behar adinako lasaitasunez erantzun.

Era berean, aukera hau baliatu nahi dut adierazteko bihotz-bihotzez eskertzen diedala Oriamendi Etxea eta Intxaurrendoko CADeko begirale eta arduradun guztiguztiei Txemarekin izan duten jokaera bikaina, eta oraindik ere dutena, eta hura zoriontsu izateko duten interesa. Oso harro nago zuen jarrera isila eta eraginkorragatik.

Besarkada bero bat GAUTENAKo familia osoarentzat.

**Mari Alfonso**